## UDAL BATZARRA 2022-2-28

## PLENO MUNICIPAL 28-2-2022

**2022ko urtarrilaren 31ko egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 31 de enero de 2022.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**EUDELen Erakunde Adierazpenaren berri ematea, 2022ko martxoaren 8a dela-eta: Berdintasunaren Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea.**

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek,

**Dación de cuentas de la Declaración Institucional de EUDEL con motivo del 8 de marzo de 2022: Renovar la Ley de igualdad, fortalecer el compromiso por la igualdad.**

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

Como cada año, este 8 de marzo, queremos rememorar, recordar y reivindicar la significación de las múltiples y diversas luchas libradas en favor de la consecución de los derechos que

zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarteen eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nork bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

históricamente les han sido usurpados a las mujeres. Luchas que, sin lugar a duda, han contribuido al logro de enormes avances en diversas áreas de la vida de las mujeres y que no hubieran sido posibles sin la contribución de las asociaciones de mujeres y del movimiento feminista. Un trabajo colaborativo entre personas individuales, colectivos e instituciones, cada cual, desde su espacio de incidencia sumando fuerzas y compartiendo estrategias en favor del mismo objetivo: la consecución de la igualdad de mujeres y hombres. Aún hoy, tenemos un largo camino por recorrer en la consecución de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres, y por eso es imprescindible seguir reivindicando el día de las mujeres.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.

En este marco, es necesario poner en valor la aprobación en el Parlamento Vasco de la Modificación de la Ley vasca 4/2005 para la Igualdad, enraizada en el contexto idóneo para construir el marco normativo que posibilite dar un salto cualitativo en favor de la igualdad y contra la violencia machista.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako

Somos conscientes de que en nuestros pueblos y ciudades contamos hoy en día con una ciudadanía cada vez más sensibilizada con la igualdad, cada vez

neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzungo dion tresna bat emateko.

más demandante de medidas en contra de la violencia hacia las mujeres. Por ello, esta nueva Ley es una oportunidad excelente para dotarnos de una herramienta que responda a este clamor social y al compromiso de las instituciones ante la ciudadanía

Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.

Estamos ante una modificación de la ley para la igualdad que supone un fortalecimiento de las políticas de igualdad y, por tanto, un avance hacia una sociedad más justa e igualitaria

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.

Todo ello en el convencimiento de que la igualdad de mujeres y hombres, además de ser un derecho humano, es una necesidad estratégica para la profundización en la democracia y para la construcción de una sociedad vasca más cohesionada, inclusiva y sostenible social y económicamente

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetza estuan.

Y en este reto como sociedad, las entidades locales tenemos la oportunidad de dar la mejor de las respuestas al gran desafío que supone el nuevo marco normativo, siempre en estrecha colaboración con la ciudadanía y las asociaciones y movimiento feminista locales.

Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko

El compromiso de las entidades locales con la igualdad y con la construcción de

gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdinsareatik, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

una sociedad libre de violencia contra las mujeres ha sido claro. En los últimos 15 años, y dando respuesta a la Ley 4/2005, los ayuntamientos de Euskadi se han ido dotando de estructuras, presupuestos y generando red desde Berdinsarea, para dar respuesta a las necesidades y demandas de las comunidades locales y del conjunto de la ciudadanía vasca. Al mismo tiempo, es necesario seguir avanzando, seguir mejorando y dotando a los municipios, especialmente a los más pequeños, de herramientas para hacer frente a estos retos.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduntzean; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobreziaren feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bizitza askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.

Debemos profundizar en la transversalización de la igualdad en todas las políticas públicas; en el empoderamiento de las mujeres; en la construcción de una sociedad que visibilice, valore y comparta los trabajos de cuidado; en la implicación de los hombres en la igualdad; en la disminución de la feminización de la pobreza; en favor de la libertad sexual de las mujeres; y en la educación como el instrumento más efectivo para el cambio de valores en la construcción de una vida libre para las mujeres en todos ámbitos.

Horregatik, martxoaren 8an, Eibarko udalak konpromisoa hartu dute/du berdintasunaren arloko politiken eta

Por ello, este 8 de marzo, el Ayuntamiento de Eibar se compromete a avanzar en el diseño y la planificación de políticas y

zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkien/on jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko.

Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean generoaren eta giza eskubideen ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza bultzatzea, oinarrizko, derrigorrezko eta etengabeko prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz.

servicios en materia de igualdad; en el impulso y fortalecimiento de los correspondientes mecanismos de seguimiento y evaluación, así como en la elaboración de normas, instrucciones y directrices que concreten y adecuen a sus respectivos ámbitos de intervención lo establecido en esta ley y en su normativa de desarrollo. , así como a dotar de los recursos necesarios.

Concretamente, queremos comprometernos a avanzar paulatinamente en los siguientes desafíos:

- Reforzar los recursos económicos, personales y técnicos para el desarrollo de las políticas de igualdad.
- Fortalecer el enfoque de género y de derechos humanos en el trabajo a favor de la igualdad, así como en la coordinación entre las diversas áreas del Ayuntamiento.
- Impulsar la formación interna en igualdad del personal de la administración mediante la planificación progresiva de un plan de formación básica, obligatoria y permanente.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea, gure eskumenen esparruan, detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan aurrera eginez, neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitorpena aintzat hartuz.

- Ikuspegi intersekzionalaren integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.
- Herritarren sentsibilizazioan sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.

- Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.

- Ampliar el sistema de atención a las víctimas de todas las formas de violencia machista contra las mujeres en el marco de nuestras competencias, avanzando en la mejora de los sistemas de detección temprana, situando en el centro de todas las medidas los derechos de las víctimas y su empoderamiento, y atendiendo al reconocimiento al derecho de reparación de las víctimas.
- Avanzar en la integración de un enfoque interseccional como enfoque inspirador de toda la intervención pública en materia de igualdad de mujeres y hombres.

- Profundizar en la sensibilización ciudadana, garantizando la existencia de campañas y programas institucionales de concienciación social, en particular a hombres y niños, así como al empoderamiento de las mujeres.
- Continuar desarrollando en su conjunto las medidas para la igualdad y para el empoderamiento de las mujeres, favoreciendo la participación del

movimiento feminista e incorporando sus aportaciones.

- Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta protokoloak hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea.

- Perfeccionar, y actualizar de manera periódica, los acuerdos institucionales, así como los sistemas y protocolos de coordinación.

Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrietan antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!

Animamos a la ciudadanía a participar de las movilizaciones convocadas en los municipios con motivo del 8 de marzo.

**Alkatetzak emandako ebazpenen kontu-ematea.**

**Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**Kontu-ematea. 1/2021 Kontu-hartze funtzioa ez betetzeari buruzko txostena.**

**Dación de cuentas. Informe de omisión de función interventora 1/2021.**

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

Kontu-hartzailetza honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu

Esta Intervención, en virtud de las atribuciones de control citadas y

Bateginaren (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartutakoa) 213. artikuluan aipatutako eta ezarritako kontrol-eskumenak erabiliz, apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak (Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak) garatutako eskumenak; gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 4.1 artikuluan jasotako ahalmenak direla eta, honako txosten hau ematen da:

**TXOSTENA:**

**LEHENA** Kontu-hartzearen eginkizuna toki-entitateen eta haien erakunde autonomoen egintza guztiak fiskalizatzea izango du xede, eduki ekonomikoko eskubide eta obligazioen edo gastuen aitorpena eta likidazioa eragiten dutenak, horietatik sortzen diren diru-sarrerak eta ordainketak, eta, oro har, administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsioa eta aplikazioa, kudeaketa kasu bakoitzean aplikatzekoak diren xedapenetara egokitu dadin.

establecidas en el artículo 213 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, y desarrolladas en el Real Decreto 424/2017, de 28 de abril, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local; en atención a las facultades recogidas en el artículo 4.1 del Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional; se emite el siguiente:

**INFORME:**

**PRIMERO.** La función interventora tendrá por objeto fiscalizar todos los actos de las entidades locales y de sus organismos autónomos que den lugar al reconocimiento y liquidación de derechos y obligaciones o gastos de contenido económico, los ingresos y pagos que de aquéllos se deriven, y la recaudación, inversión y aplicación, en general, de los caudales públicos administrados, con el fin de que la gestión se ajuste a las disposiciones aplicables en cada caso.

**BIGARRENA.** Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak 28. artikuluan xedatzen duenez, kontu-hartzearen eginkizuna nahitaezkoa izan eta ez bada bete, obligazioa ezin izango da aitortu, ez eta ordainketa izapidetu, ez eta jarduketa horien aldeko esku-hartzerik egin ere, harik eta aipatu ez-egitea ezagutu eta ebatzi arte.

**SEGUNDO.** Tal y como dispone el artículo 28 del Real Decreto 424/2017, de 28 de abril, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local, en los supuestos en los que la función interventora fuera preceptiva y se hubiese omitido, no se podrá reconocer la obligación, ni tramitar el pago, ni intervenir favorablemente estas actuaciones hasta que se conozca y resuelva dicha omisión.

Egoera hauetan, kontu-hartzailetzako organoak, espedientea ezagutzerakoan, espedientea hasi duen agintaritzari jakinaraziko dio, eta, aldi berean, gastu-proposamenari buruzko iritzia emango du fiskalizazio izaerarik izango ez duen txosten batean, toki-erakundeko lehendakariak prozedurari jarraipena ematen dion ala ez erabaki dezan, eta, hala badagokio, bidezkoak diren gainerako jarduketak egin ahal izan ditzan.

En estas situaciones, el órgano interventor al conocer del expediente lo manifestará a la autoridad que hubiera iniciado aquel y emitirá al mismo tiempo su opinión respecto de la propuesta de gasto en un informe que no tendrá naturaleza de fiscalización, a fin de que pueda el Presidente de la Entidad Local decidir si continua el procedimiento o no y demás actuaciones que en su caso, procedan.

**HIRUGARRENA.** 2021eko azaroaren 26an, Alkatetzaren ebazpena eman zen, eta bertan proposatu zen dibertsitate funtzionala duen ikasle bati Zeramika Eskolako matrikula baliogabetzea, bai eta

**TERCERO.** Que con fecha 26 de noviembre de 2021 se expide resolución de alcaldía proponiendo la anulación de la matrícula de Zeramika Eskola a un alumno con diversidad funcional, así

matrikula horretan ordainduta zituen zatiak itzultzea ere.

como a la devolución de las partes abonadas de dichas matrículas.

**LAUGARRENA.** Udal Kontu-hartzailetzak ebazpen horren berri izan ondoren, eta behar den eskaera egin ondoren, Udal Diruzainak 2021eko abenduaren 2ko txosten hau eman zuen:

**CUARTO.** Una vez la Intervención municipal tuvo constancia de dicha resolución y tras la solicitud oportuna, el Tesorero municipal emitió el siguiente informe con fecha 2 de diciembre de 2021.

*“Udal Diruzainak, Udal Kontu-hartzaileak abenduaren 1ean egindako eskaerari erantzunez, Alkatetzaren 2021eko azaroaren 26ko Ebazpenari zegokiona, zeinean proposatu zen dibertsitate funtzionala duen ikasle bati Zeramika Eskolako matrikula baliogabetzea, bai eta matrikula horretan ordainduta zituen zatiak itzultzea ere; eta Kultura Ataleko arduradunak emandako txosten teknikoa oinarritzat hartuta,*

*“El Tesorero Municipal, en contestación a la solicitud de fecha 1 de diciembre, presentada por el Interventor Municipal en relación a la resolución de alcaldía de 26 de noviembre de 2021 en la que propone la devolución y la anulación de la matrícula a un alumno con diversidad funcional, de la escuela municipal “Zeramika Eskola”, así como la devolución de las partes abonadas el mismo; y tomando como base el informe técnico emitido por el responsable de la unidad de Cultura del Ayuntamiento,*

*HAUXE AZALTZEN DU*

*INFORMA*

*Indarrean dauden Ordenantza Fiskaletan sartuta dagoen atal honek, “Tasak udal eskoletan ematen diren eskolengatik”*

*Que el apartado de “Tasas por las enseñanzas impartidas en escuelas municipales”, incluido en las Ordenanzas*

*izenekoak, hauxe ezartzen duela matrikula-ordainketari dagokionez:*

*Fiscales en vigor, dispone lo siguiente en cuanto al pago de la matricula:*

*“Matrikula hiru zatitan ordainduko da (urrian, abenduan eta martxoan), hirurak zenbateko berdinekoak izango dira.*

*“El pago de la matrícula se hará en tres fracciones iguales en los meses de octubre, diciembre y marzo.*

*“Matrikula gauzatzeko unean bertan sortzen da urteko kuota ordaintzeko obligazioa, beraz, ikasturtean zehar egon daitezkeen bajek -ikasturtea amaitzeko gera daitezkeen hilabeteak zenbat diren kontuan hartzeke- ez dute urteko kuota murrizteko eskubiderik sortzen.”*

*En el momento de formalizar la matrícula se devenga la obligación de pago de la cuota anual, por lo que las bajas que puedan producirse durante el curso, con independencia de los meses que resten para su finalización, no generan derecho a la reducción de la misma.*

*Ostera, irailaren 15a baino lehen baja eskatzen dutenek, matrikularen zenbateko osoaren % 10a ordaindu beharko dute.”*

*Se exceptúa el caso de las personas que antes del 15 de septiembre soliciten la baja, las cuales deberán abonar el 10 % del importe total de la matrícula.”*

*Horiek horrela, eta gaur egun indarrean dauden ordenantza fiskaletan jasotakoaren arabera, ez da bidezkoa ordaindutako zenbatekoa itzultzea, ez eta hurrengo kuota bi hauek ordaintzetik salbuestea ere.*

*Por lo anteriormente expuesto, y según lo recogido en las ordenanzas fiscales que actualmente se encuentran en vigor, no procede devolver el importe abonado y tampoco la exención del pago de las dos cuotas siguientes.*

*Aurreko oharrak egin ondoren, diruzain honek horixe da adierazten duena, Zuzenbidean hobeki oinarrituriko beste irizpide bat baztertzeke.”*

*Hechas las anteriores indicaciones, este Tesorero es todo cuanto informa sin perjuicio de otro criterio mejor fundado en Derecho”.*

**BOSGARRENA.** Aipatu kontu-hartze eginkizuna ez dela bete ikusita, espedientea aztertu eta horren berri izan ondoren, egiaztatu da ez dela bidezkoa ordaindutako zenbatekoa itzultzea eta ordaintzeke dauden gainerako kuota biak ordaintzetik salbuestea. Beraz, kontu-hartzaile honen iritziz, bidezkoa da egintza berrikustea, proposamenak ez baitu betetzen aplikatzekoa den araudia.

**QUINTO.** A la vista de la omisión de la función interventora referida, una vez revisado el expediente y tras haber tenido conocimiento del mismo, queda constatada la improcedencia de devolver el importe abonado así como la exención del pago de las dos cuotas restantes. Por lo tanto, a juicio de esta Intervención se considera procedente la revisión del acto puesto que la propuesta no tiene encaje en normativa aplicable.

Hori da txostenean eman beharreko guztia, Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpide bat alde batera utzi gabe.

Es todo cuanto procede informar, sin perjuicio de otro criterio mejor fundado en derecho.

**Berraztertzeko errekurtsoak, 2021eko urriaren 25eko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren aurkakoak. Erabaki horren bidez, Eibarko Udalaren eta Euskal Trenbide-Sarearen arteko lankidetza-hitzarmena onetsi zen Eibar-Azitain trenbidearen trazaduraren hiri-integrazioa hobetzeko.**

**Recursos de reposición interpuestos contra acuerdo de Pleno Municipal, de 25 de octubre de 2021, mediante el que se aprobó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbidea Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar-Azitain.**

BOZKETAREN EMAITZA:

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (5).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa eskuratu duenez, onartu egin da.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (5).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Alcanzada mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, queda aprobado.

Berraztertzeko errekurtsoen berri eman da, 2021eko urriaren 25eko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren aurkakoak jarritakoak. Erabaki haren bidez, Eibarko Udalaren eta Euskal Trenbide-Sarearen arteko lankidetza-hitzarmena onetsi zen Eibar-Azitain trenbidearen trazadura hirian hobeto integratzeko.

Se da cuenta de los recursos de reposición interpuestos contra el acuerdo del Pleno Municipal, de 25 de octubre de 2021, mediante el que se aprobó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbide Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar-Azitain.

Hirigintzako lege-aholkulariaren 2022ko otsailaren 15eko txostena ikusita,

Visto el informe del Sr. Asesor Jurídico de Urbanismo, de 15 de febrero de 2022.

Kontu-hartzailetzaren 2022ko otsailaren 16ko txostena ikusita,

Visto el informe de Intervención, de 16 de febrero de 2022.

Idazkaritzaren 2022ko otsailaren 16ko txostena ikusita,

Visto el informe de Secretaría, de 16 de febrero de 2022.

Aintzat hartuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1, 24.1, 24.3.b), 57, 117.3 y 124.2 artikuluek ezarritakoa,

Considerando lo dispuesto en los artículos 21.1, 24.1, 24.3.b), 57, 117.3 y 124.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123.1 artikuluak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.h) artikuluak ezartzen dutenez, akordioa Udalbatzak hartu behar du, udalkideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaz.

Considerando que los artículos 123.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 47.2.h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, establecen que el acuerdo deberá ser adoptado por el Pleno Municipal, por mayoría absoluta del número legal de sus miembros.

Kontuan hartuta Erakunde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena, 2022ko otsailaren 21ekoa.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 21 de febrero de 2022.

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Enrique Montero jaunak, Sonia García López andreak, Leire

**PRIMERO.-** Desestimar los recursos de reposición interpuestos por D. Enrique

Bercianos Santa-María andreak, María Jesús Arizaga Telleria andreak, Óscar San Martín Andueza jaunak, Leire Troitiño Berasategui andreak, Eneritz Guisasola Arana andreak, Jesús Manuel Keller Echevarria jaunak, Ane Urkiola Zendoia andreak, Andrea Alberdi Domínguez andreak, Paula Alberdi Domínguez andreak, María Milagros Arrieta Aguirre andreak, Ane Miren Zubia Carral andreak eta Javier Yarza Amillategui jaunak 2021eko urriaren 25eko Osoko Bilkuraren erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoak ezestea. Erabaki horren bidez, Eibarko Udalaren eta Euskal Trenbide Sarearen arteko lankidetza-hitzarmena onartu zen, Eibar-Azitain trenbidearen trazadura hirian hobeto txertatzeko. .

Montero Aristondo, Dña. Sonia García López, Dña. Leire Bercianos Santa-María, Dña. María Jesús Arizaga Telleria, D. Óscar San Martín Andueza, Dña. Leire Troitiño Berasategui, Dña. Eneritz Guisasola Arana, D. Jesús Manuel Keller Echevarria, Dña, Ane Urkiola Zendoia, Dña. Andrea Alberdi Domínguez, Dña. Paula Alberdi Domínguez, Dña. María Milagros Arrieta Aguirre, Dña. Ane Miren Zubia Carral y D. Javier Yarza Amillategui, contra el acuerdo del Pleno, de 25 de octubre de 2021, mediante el que se aprobó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbide Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar-Azitain.

Ezeste hau oinarritzen duten arrazoibideak Hirigintzako lege-aholkulariaren 2022ko otsailaren 15eko txostenean eta Kontu-hartzaile jaunaren 2022ko otsailaren 16ko txostenean daude. Hona hemen arrazoiak:

Los motivos en los que se fundamenta esta desestimación se contienen en los informes del Sr. Asesor Jurídico de Urbanismo, de 15 de febrero de 2022, y del Sr. Interventor, de 16 de febrero de 2022; a saber:

- Ezetsi egiten da sinatutako hitzarmena baliogabetzeko eskaera, errekurtsogileek

- Se desestima la solicitud de nulidad del convenio suscrito por falta de tramitación del

ezarritako prozedura ez izapidetzeagatik egindakoa; hitzarmenaren helburua obra publiko bat finantzatzea delako, eta ez Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak hirigintza-hitzarmenen xedetzat finkatzen dituen gai hauetako bat:

a) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean dagoen planeamenduan egin daitezkeen aldaketen edukia zehazteko.
b) Hirigintza betearazteko hitzarmenak: hitzarmena egiten den unean indarrean dagoen planeamendua kudeatu eta gauzatzeko zehaztapenak eta baldintzak ezartzeko.

Horren ondorioz, ez da beharrezkoa honelako hitzarmenetarako legez aurreikusitako izapidegintza.

- Ezetsi egiten da sinatutako hitzarmena baliogabetzeko eskaera, errekurtsogileek Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra argi eta garbi urratzeagatik egindakoa; izan ere, lehenik eta behin, Plan Orokorrak ez ditu baimentzen trenbidea

procedimiento legalmente establecido, ya que su objeto es financiar una obra pública y no ninguna de las materias que la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo fija como objeto de los convenios urbanísticos:

a) Convenios sobre ordenación urbanística: para la determinación del contenido de posibles modificaciones del planeamiento en vigor.
b) Convenios de ejecución urbanística: para establecer los términos y las condiciones de la gestión y la ejecución del planeamiento en vigor en el momento de la celebración del convenio.

En consecuencia, no es necesaria la tramitación legalmente prevista para este tipo de convenios.

- Se desestima la solicitud de nulidad del convenio suscrito por vulnerar abiertamente el Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, puesto que, en primer lugar, aquél no autoriza las obras de cubrición de la línea ferroviaria, y,

estaltzeko obrak, beraz, ez dago kontraesan hori.

por tanto, no puede existir tal contradicción.

Bigarrenik: trenbideak eraikitzeko edo aldatzeko obrek ez dute hirigintza-lizentziarik behar; hirigintza-planeamendua da trenbide-plangintzara egokitu behar dena, ez alderantziz. Hala aurreikusten da trenbide-sektoreari buruzko Estatuko araudian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planean (otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartua). Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren eta Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren artean kontraesanen bat balego, bigarrena izan beharko litzateke lurralde-antolaketako tresnara egokitu beharko litzatekeena, ez alderantziz. Inola ere ezin da onartu Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak izatea lehentasuna Lurraldearen Arloko Planaren gainetik, trenbide-sarearen trazadurari dagokionez.

En segundo lugar, las obras de construcción o modificación de líneas ferroviarias no están sujetas a licencia urbanística y es el planeamiento urbanístico el que debe adaptarse a la planificación ferroviaria, y no a la inversa. Así se prevé en la normativa estatal sobre el sector ferroviario y en el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Decreto 41/2001, de 27 de febrero. Asimismo, en caso de que existiera contradicción entre el Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, es este último el que debería adaptarse al instrumento de ordenación territorial, y no al contrario. En ningún caso se puede admitir que el Plan General de Ordenación Urbana de Eibar tenga prevalencia sobre el Plan Territorial Sectorial, en lo que se refiere al trazado de la red ferroviaria.

Hirugarrenik, indarrean dagoen planeamendu-tresnan egungo trazadura aldatzea eta trenbide-saihesbide berri bat egitea islatzen bada ere, zati hori ezin da

En tercer lugar, aunque en el vigente instrumento de planeamiento se contempla un cambio del trazado actual con una nueva variante ferroviaria, esa

onartutzat hartu, izan ere, bai Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen nahitaezko txosten lotesleak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu zuen erabakiak, berariaz adierazi zuten saihesbidearen aurreikuspena eta hiriguneko trenbide-trafikoa ezabatzea ez zirela lotesleak Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarentzat, eta hura da Bilbo-Donostia trenbidearen aldaketak onartzeko eskumena duena. Beraz, aurreikuspen hori sekula ez da indarrean egon, eta horregatik ez da beharrezkoa izan Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren aurreikuspenetara egokitzea.

parte no debe considerarse aprobada puesto que, tanto el informe preceptivo y vinculante de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, como el acuerdo de aprobación definitiva adoptado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, indicaron expresamente que la previsión de la variante y la eliminación del tráfico ferroviario en el centro de la ciudad no vinculaban al Departamento de Transportes del Gobierno Vasco, que en todo caso, es el competente para aprobar las modificaciones de la línea ferroviaria Bilbao - San Sebastián. Por tanto, esa previsión no ha llegado a estar vigente, y por ello no ha sido necesario adaptar el Plan General de Ordenación Urbana de Eibar a las previsiones del Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Azkenik, aurreko atalean adierazitakoaz gain, erabilerei dagokienez, ez dago kontraesanik Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eta Eibarko geltokia-Azitain trenbide-tartearen estaldura-proiektuaren eta Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren artean, azken horrek estalduraren xede diren eremuetan “trenbidea lurperatzearen edo estaltzearen ondoriozko espazio libreak” erabiltzea aurreikusten baitu. Horrela

Por último, además de lo dicho en el punto anterior, no existe contradicción en cuanto a los usos entre el proyecto de cobertura del tramo ferroviario estación de Eibar-Azitain y el Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, porque este último prevé en las zonas objeto de la cobertura el uso de “espacios libres derivados del soterramiento o cobertura de las vías de tren”. Así se indica en el plano de ordenación IX Espacios Libres del

adierazten da planeamendu orokorreko tresnaren IX. antolamendu-planoan (“Espazio libreak” deritzona), errekurritzen dutenek beren errekurtsoan sartzen dutena, eta horrela jasotzen da Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak onartutako proiektuaren dokumentazioan.

- Ezetsi egiten da 40/2015 Legearen 48. artikulua urratu izanari buruzko arrazoia (aurrekontu-segurtasunik eza, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak ez betetzea eta finantza-iraunkortasuna); izan ere, hitzarmenean jasotako hasierako aurrekontuak, Eibarko Udalaren konpromiso-kredituen egoera onetsi ondoren, ez du arriskuan jartzen udal ondarearen oreka ekonomiko-finantzarioa. Hitzarmenaren aldaketa teoriko bat Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi beharko litzateke, eta hura gauzatzea kreditu egokia eta nahikoa izatearen mende egongo da. Gainera, obra-harreraren ondoriozko gastuak toki-erakunde honen beronen gastuetan sartuko dira, eta gastu horiek guztiek aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete beharko dituzte.

instrumento de planeamiento general, que quienes recurren incluyen en su recurso, y así se recoge en la documentación del proyecto aprobado por el Departamento de Transportes del Gobierno Vasco.

- Se desestima el motivo de vulneración del artículo 48 de la Ley 40/2015 (inseguridad presupuestaria, incumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera), puesto que el presupuesto inicial recogido en el convenio, una vez aprobado el estado de créditos de compromiso del Ayuntamiento de Eibar, no pone en riesgo el equilibrio económico-financiero del Patrimonio Municipal. Una teórica modificación del convenio deberá ser aprobada por acuerdo plenario, y estará supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para llevarla a cabo. Además, los gastos que deriven de la recepción de la obra se enmarcarán dentro de los gastos propios de esta entidad local, donde el conjunto de los mismos

deberá dar cumplimiento a los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

**BIGARRENA.-** Bertan behera uztea inpugnatutako akordioaren eta akordioak onartutako hitzarmenaren betearazpenaren etendura automatikoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 117.3 artikuluaren arabera egina, inpugnatutako osoko bilkuraren akordioan ez baita ordenamendu juridikoa hautsi.

**SEGUNDO.-** Levantar la suspensión automática de la ejecutividad del acuerdo impugnado y del convenio aprobado por él, operada en virtud del artículo 117.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, al no existir infracción del ordenamiento jurídico en el acuerdo plenario impugnado.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta adieraztea erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dutela Donostian egoitza duten administrazioarekiko auzien epaitegien aurrean, hilabete biko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124.3 artikuluan eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 8/1998 Legearen 8, 10 eta 46 artikuluetan ezarritakoarekin bat

**TERCERO.-** Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas, indicándoles que contra el mismo podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo con sede en Donostia – San Sebastián en el plazo de dos meses, contados a partir de la notificación, de conformidad con lo establecido en los artículos 124.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y 8, 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Sin perjuicio

etorriz. Hala ere, interesdunek egoki iruditzen zaien beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

de que los interesados puedan interponer cualquier otro recurso que estimen oportuno.

**Etxeko laguntza zerbitzuaren lizitaziorako espedientea onartzea.**

**Aprobación de expediente para la licitación del Servicio de ayuda a domicilio.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: : 6 - Eibarko EAJ-PNV.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

Eibarko Udal Kontuhartzaileak Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren lizitaziorako espedientea aurkezten du.

El Interventor de Fondos del Ayuntamiento de Eibar presenta el expediente para la licitación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

….., Kontratazioen eta Dirulaguntzen Unitateko Zuzendariak egindako Ebazpen proposamena,

Se da cuenta de la propuesta de Resolución del Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones,

Kontuan hartuta Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena, 2022ko otsailaren 21ekoa.

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

**ERABAKIA**

**Lehena:** Goian adierazitako kontratatziorako espedientea prozedura irekiz onartzea (2017 SPKL 156. art.)

**Bigarrena:** Kontratua arautuko duten administrazio baldintza berezien agiria eta agiri teknikoa onartzea; kontratuak ez du aurrikusten lotetan adjudikatzea.

**Hirugarrena:** Gastu iraunkorra eta segidako traktuko gastua denez, organo eskudunak konpromisoa hartzen du etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak erreserbatzeko, enpresa esleipendunarekin hartutako betebeharraren ondorioz eragiten zaionean.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 21 de febrero de 2022.

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

**Primero:** Aprobar el expediente para la contratación en la cabecera indicada por procedimiento abierto (art. 156 LCSP 2017)

**Segundo:** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego técnico que habrán de regir el contrato, que no prevé su adjudicación en lotes.

**Tercero**: Disponer que, por tratarse de un gasto permanente y de tracto sucesivo, el órgano competente se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados de resultas de la obligación contraída con la empresa adjudicataria.

**Laugarrena:** Adjudikazio-prozedurari hasiera ematea xedatzea

**Bosgarrena:** Pertsona hauek izendatzea Kontratazio Mahaikide:

**PRESIDENTEA**

Ana Tellería (Ogasunaren Aholku Batzordearen presidentea)

*- Presidentearen ordezkoa: Alberto Albístegui (lehen alkateordea).*

**BOKALAK**

Xabier Andrés (udal kontu-hartzailea)

Juan Agustín Villafranca (Udal idazkaria)

Irune Aramburu (Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arduraduna)

Jaione Azkue (Gizartekintza Saileko arduraduna)

**Cuarto**: Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación.

**Quinto**: Nombrar a las siguientes personas como miembros de la Mesa de Contratación:

**PRESIDENTE**

Ana Tellería (Presidenta de la Comisión Asesora de Hacienda)

*- Suplente del Presidente: Alberto Albístegui (Primer Teniente de Alcalde)*

**VOCALES**

Xabier Andrés (Interventor Municipal)

Juan Agustín Villafranca (Secretario Municipal)

Irune Aramburu (Técnica Responsable del Servicio de Ayuda a Domicilio)

Jaione Azkue (Responsable del Área de Servicios Sociales)

**IDAZKARIA**

Enrique Errasti (Kontratazio eta Dirulaguntzen Unitatearen zuzendaria).

*- Idazkariaren ordezkoa: Arantza Garay (Kontratazio Unitatearen administraria)*

**SECRETARIO**

Enrique Errasti (Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones)

*- Suplente del Secretario: Arantza Garay (Administrativa de la Unidad de Contratación)*

**SEIGARRENA:** Espediente honetan Udalbatzak dituen kontratu-eskumenak Alkatearen ESKU UZTEA, kontratazioaren kudeaketan eta haren gorabeheretan arintasun handiagoa lortzeko, SPKLaren 61.2. artikuluan ezarritakoarekin bat.

**SEXTO**: DELEGAR en el Alcalde las competencias contractuales que en este expediente ostenta en Pleno Municipal, en orden a conseguir una mayor agilidad en la gestión de la contratación y sus incidencias, de conformidad con lo establecido en el artículo 61.2 de la LCSP.